



HAUR HEZKUNTZAKO JOLASTOKIAREN ERABILPENARI BURUZKO OHARRA

Haur Hezkuntzako jolastokia hainbat familiaren aisialdi esparrua bilakatu da. Arratsaldero, gune hori zabalik mantentzen dugu familiek, eta ikasleek bereziki, Ikastola aisialdirako aukera bezala ere goza dezaten.

Erabilpen hori, jakina, Ikastolan darabiltzagan hezkuntza irizpide berberekin jorratu behar da, hau da, une oro eskola ordutegi barruan darabiltzagan erabilpen eta garbitasun arauak jarraitu behar dira.

ERABILPEN DESEGOKIA

Azken boladan esparru horren erabilpen desegokia antzeman dugu eta horrek Artezkaritza Kontseiluaren eta Zuzendaritzaren arteko hausnarketa partekatu hau ekarri du:

Jolastokian dagoen materialaren erabilpen desegokia gertatu da: kutxak apurtu, materiala aparkaleku eta mendira bota...

Oinarrizko garbitasun eta higie-ne neurriak ez dira betetzen: haurrek patioan bertan egiten dute txisa edo komun erabilpen desegokia egiten dute paperez edo bestelakoekin burxatu arte, hondakinak jolastokian botata gelditzen dira...

Esparruan aritzeko haurren gutxienezko segurtasun eta erabilpen neu-



rriak ez dira zaintzen: jolastokia inguratzen duen hesi gainera igotzen dira, etxetxoaren teilatu gainera...

Ikastolako jarduera eta pertsonen errespetu faltak gertatzen dira: txirrina jotzen dute etengabe Ikastola barruan daudenen lana oztopatuz, langileei burla egiten zaie arreta deitzen zaienean...

NEURRI ZUZENTZAILEAK

Egoera aztertuta, Artezkaritza Kontseiluak eta Zuzendaritzak familiarik egoeraz informatzea erabaki dute, guztion gozamenerako esparru komunitario hori behar bezala zaindu beharraz jabetu gaitzen.

Egoera bere onera ez bueltatzekoan, esparru hori Ikastolako ordutegi lektibotik kanpo ixtea aztertuko da.



NOTA SOBRE LA UTILIZACIÓN DEL PATIO DE EDUCACIÓN INFANTIL

El patio de Educación Infantil es también un espacio de ocio para numerosas familias. Por las tardes mantenemos el patio abierto para que las familias, y en especial el alumnado, disfruten también la Ikastola como una opción para el ocio.

Por descontado, esa utilización debe realizarse bajo los mismos criterios educativos de la Ikastola, es decir, se deben seguir en todo momento las normas de utilización y limpieza que utilizamos dentro del horario escolar.

UTILIZACIÓN INAPROPIADA

Últimamente hemos observado una utilización inadecuada de ese espacio, lo que ha llevado a la Junta Rectora y la Dirección a una reflexión compartida:

Se ha producido una utilización inadecuada del material: cajas rotas, material tirado en el aparcamiento y monte...

No se cumplen las medidas de limpieza e higiene: el alumnado orina en el patio y utiliza de forma inadecuada los servicios atascándolos con papel y restos, se deja basura en el patio...

No se observan las normas de seguridad mínimas con el alumnado: se les permite trepar hasta lo alto de la valla,



subir al tejado de la caseta...

Se producen faltas de respeto con la actividad de la Ikastola y las personas: tocan el timbre constantemente, faltan al respeto y se burlan de las trabajadoras cuando se les llama la atención...

MEDIDAS CORRECTORAS

Vista la situación, la Junta Rectora y la Dirección han decidido informar de la situación a las familias y promover una reflexión sobre la importancia de utilizar de forma adecuada ese espacio comunitario.

En caso de que la situación no se solucionara, se valorará cerrar el espacio fuera del horario lectivo.